



Portu aldera ondoren. Udaletxean Kontxako bandera eta kopa jaso ostean, portu aldera joan ziren Donostiako ontziko kideak, jarraitzaile ugariarekin batera. Argazkian, Igentea kalean ageri dira, pasakalean, pozik guztiak ere.



Bandera bedeinkatzera astebetera. Urte bereko —1950eko— irailaren 17ko irudia da goikoa; Kontxako Bandera irabazi eta astebete geroagokoa hain zuzen. Donostiako ontzikoak San Pedro elizara joan ziren bandera bedeinkatzera.



Atotxan ere erakutsi zuten. Irailaren 17an bandera bedeinkatu ostean, Atotxa futbol estadiora joan ziren Donostia ontzikoak, Real-Madrid partiduaurretik banderarekin itzuli bat egitera, omenaldi gisa. Realak 6-2 irabazi zuen orduan.

Andoni Oliden Tolosa • DONOSTIAKO ONTZIKO ARRAUNLARIA 1950EAN •

«Urte hartan Pedreña ez zen Donostiara etorri; beldurtu egin genuen»

ANDONI OLIDEN-EK marka ikusgarria du Kontxan: 11 bandera arraunlari gisa eta beste bat patroiz bezala. Hamabi guztira. 1950ean Donostiarekin irabazitakoa lehenengoa izan zen.

■ Nola oroitzen duzu garai hartako garaipena?

Orio eta Hondarribia ez ziren atera urte hartan. Guk Orion trainerila bagenuen, baina trainerua ez zen osatzen. Donostian traineru indartsu bat egin nahi zuten, eta bertan hasi ginen lanean hainbat herritako arraunlariak, guztiak Donostiaren

izenean. Garai hartan horrelako selekzioak egiteko aukera zegoen, eta erraz irabazi genuen. Arraunlari gisa izan nuen urterik onena izan zen.

■ Orduan Pedreña zen arerio gogorrena, ezta?

Bai, baina urte hartan guk irabazi genituen Donostia eta Santanderko banderak. Oso koadrila ona bildu ginen. Kontxakoa baino lehen Santanderrera joan ginen. Han, justu baina bi egunetan irabazi genion Pedreñari. Errekan irabazi geniela ikusita, Donostiara ez etortzea erabaki zuten, itsasoan ez zi-



EDURNE KOCH

Andoni Oliden, joan den asteazkenean, bere etxean, 1950eko koparekin.

relako ongi moldatzen. Beldurtu egin genituen.

■ Zergatik ez du irabazi Donostiak ordutik Kontxan?

Elkarrekin ez dira biltzen. Batetik Arraun, bestetik Urki, eta, aurten atera ez bada ere, Fortuna hor dago. Horrela zaila da.

■ Elkartuko balira, izango al lukete aukerarik?

Nire ustez bai. Ez dakit irabazteko moduan izango liratekeen, baina lehenengo postuetan ibiliko liratekeela zalantzarik ez dut.

Ekaitz Agirre
LASARTE-ORIA

Arraun eta Urki konpondu ezinda

R. B. / Donostia

MENDE ERDIA igaro da Donostiako traineruen azken garaipenetik, arazoak handiak izan dira eta. «Arraunketa zatituta egon da Donostian. Guk garrantzi handia eman diogu aulki mugikorrari», esan digu Ricardo Unzueta Ur Kirolakeko presidentea. Ezin ei da aurreratu noiz bukatuko den lehortea. «Arraunketa itsasoa bezalakoa da. Olatuaren goialdean egon zaitzke edo zuloan sartuta».

Donosti-Arraun izan da Donostiako ordezkaria Kontxako azken ekitaldian. Xabier Arrieta presidentearen aburuz, hiriko taldeen arteko elkarlana bultzatu behar da, «traineru indartsua» osatzeko. «Baina klub bakoitzak bere bidea egiten du».



HERRI KIROL PATRONATUA
☎ 943 52 94 04 - Faxa: 943 52 94 12
Udal Polikiroldegia

ERRENTERIAKO HERRIKO KIROL PATRONATUAREN KIROL INSTALAKUNTZAK

● BULEGOAK

Helbidea: Udal Polikiroldegia
Telefona: (943) 52 94 04 - 08
Faxa: (943) 52 94 12

● POLIKIROLDEGIA

Helbideak: Vagüada Galtzaraborda
Telefona: (943) 51 89 66
Faxa: (943) 51 89 85

● UDAL PILOTALEKUA

Helbidea: Nafarroa etorbidea z/g

● BERAUNGO KIROL ZONALDEA

(Futbol-zelaia, Atletismo pistak eta frontoia)
Helbidea: Beraun kalea z/g
Telefona: (943) 51 81 88

● KAPUTXINOETAKO KIROL ZONALDEA (Udal igerilekuak)

Helbideak: Galtzaraborda etorbidea z/g
Telefona: (943) 52 86 68



**ERRENTERIAKO
UDALA**

